



# ETB C01 I02 Eduki-hornitzaileen erregistroa eta homologazioa

Prozedura: ETB C01 Ekoiztetxeen programak kontratatzea

03/2022



# Araua/Jarraibidea

## Helburua eta Irismena

*ETB C01 Ekoiztetxeen programak kontratatzea* buruzko eduki-hornitzaileak erregistratu, homologatu eta deshomologatzeko sistematika ezartzea.

## Jabea

Merkatal kontratazioaren koordinatzailea

# Jarraipena

Bertsio zk.	Eguna eta aldaketak
1	2018-01-15 Prozeduraren 1. edizioa
2	2018-03-20 Aldeaketak homologazio-irizipideetan
3	2019-10-01 Aldaketak "Emisio tipologia"n eta Kantar Median erregistroari buruzko erreferentziak ezabatzea
4	202-09-15 Prozeduraren berrikuspena
5	2021-12-16 Prozeduraren berrikuspena

# Deskribapena

## 1. Erregistroa

**Derrigorrezko errekerimendu** bat da, *ETB C01 Ekoiztetxeen programak kontratatzea* prozedurarekin lotutako kontratuen kasuan, enpresa esleipendunak eduki-hornitzaile gisa erregistratuak egotea [www.eitb.eus](http://www.eitb.eus) webgunearen bidez.

Horretarako, **Eduki-hornitzaileen erregistroarako galdeketa-orria** bete beharko dute. Hornitzaileari dagokio, eitb.eus webgunera (Ekoizteteentzako atarian) konektatzea, eta behar bezala betetzea.

## 2. Homologazioa

Homologazioak, **soilik telebistako edukiei dagokienez**, ikus-entzunezko proiektua gauzatzeko bermeak eskaintzen ditu, eta horregatik, derrigorrezko errekerimendu bat da **15.000 € baino gehiagoko balioa eta proiektuak aurkezteko sistema hauetariko batean jatorria duten edukien kontratuetarako:**

### **B – “Zenbait ekoiztetxeri egindako proiektu eskaera”**

Programen Zuzendaritzari dagokio sistematika horietarako proiektu-eskaerak enpresa homologatuei soilik egiteko ardura.

Homologatzeko derrigorrezko errekerimendutik salbuetsita daude *ETB C01 Ekoiztetxeen programak kontratatzea* prozedurarekin lotutako kontratuak, baldin eta ezaugarri hauetariko batekin bat badatoz:

- a) 15.000 € baino gutxiagoko eduki-kontratuak.
- b) Jatorria proiektuak aurkezteko sistema hauetariko batean duten eduki-kontratuak:

- A - “Proiektuen Lehiaketa”.**
- C - “Ekoiztetxe bati egindako proiektu-eskaera”**
- D - “Ekoiztetxearen inizatiba”.**

Kasu horietan, ETBko Programetako Produzio sailari dagokio kontratua formalizatu aurretik enpresa esleipendunen erregistroa egiaztatzeke ardura.

Kategoria batean homologatu ahal izateko, ezinbestekoa da:

- a) **Eduki-hornitzaileen erregistrarako galdeketa-orria** betetzea. Galdeketa-orri hori [www.eitb.eus](http://www.eitb.eus) (ekoiztetxearen ataria) webgunean eskura daiteke, esteka honetan hain zuzen ere: <https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/ekoiztetxeen-ataria/>. Hornitzaileari dagokio webgunean konektatzea eta behar bezala betetzea. Homologazioa eduki-tipologiaren kategorien arabera egingo da. Zehazki:

Telebista tipologia:

1. Fikzioa
2. Aktualitatea
3. Dokumentala
4. Platoko entretenimendua
5. Platoko kanpoko entretenimendua

- b) Dagokion eduki-tipologian esperientzia egiaztatua eta nahikoa izatea bermatzea. Hori dela eta, ondorengo irizpideen arabera homologatuko dira enpresak:

#### 1. irizpidea: esperientzia frogatua izatea EITB Median

Ekoiztetxea edukiaren diseinuan eta produkzioan EITB Media SAUrentzat esku hartzaile nagusia izan dela egiaztatzea, gutxienez **15 orduko jatorrizko edukiarekin** tipologia bakoitzeko (ez dira zenbatuko ez berriz emandako edukiak ez errepikapenak), **fikzio-** eta **dokumental-**tipologiak izan ezik, horietan **4 orduko** betekizuna izango baita.

#### 2. irizpidea: esperientzia frogatua izatea EITB Media ez diren hedabideetan

Tipologia bakoitzeko jatorrizko edukien ordu kopuruen ezaugarriak 1. Irizpidean adierazitakoak dira.

Hirugarren enpresetan ekoitzi eta emandako edukiak egiaztatzeko, honako hau egiaztatu beharko du ekoiztetxeak:

i) Adierazpen formala, programaren titularra ekoiztetxea dela adieraziz. Ikus-entzunezko obraren kapitulu baten kopia ere atxikitu beharko da kredituekin (Copyright-a ez du ekoiztetxeak edukiko, telebistarena delako).

ii) Telebista-operadorearen emisio-ziurtagiria, honako hauek adieraziz: katearen izena, enpresaren izena, programaren jatorrizko izenburua, emisioaren eguna, hasiera-ordua eta programaren iraupena.

c) Homologazioaren balorazio-prozesua gainditzea, hau da:

- **Erosketa burua:** Eskaeraren tramitazio administratiboa.
- **Merkatal Kontratazioaren koordinazioa:** Dokumentazioaren eta/edo ziurtagirien eta/edo egiaztapenen baliozkotasuna, nahikotasuna eta adostasuna ikuspegi juridikotik egiaztatzea.
- **Programa Zuzendaritza:** Dokumentazioaren eta/edo ziurtagirien eta/edo egiaztapenen baliozkotasuna, nahikotasuna eta adostasuna ikuspegi artistikotik egiaztatzea.
- **EITB Mediako Zuzendaritza:** Kontsulta eta erreklamazioen inguruan eztabaidatzea, behar izanez gero, Aholkularitza Juridikoko Zuzendaritzaren laguntzarekin.

### 3. Deshomologazioa

Deshomologazioa gertatzen da Merkataritza Kontratazioko Koordinatzaileari jakinarazitako gorabeherak edo erreklamazioak kontrolatuz, eta [ETB C01 Ekoiztetxeen programak kontratatzea](#) prozedurari dagozkion kontratuei eragiten die. Deshomologazioak inzidentzia edo erreklamazioa gertatu den kategoriari bakarrik eragingo dio.

### 4. Erregistratutako eta homologatu gabeko enpresentzako denbora-muga

Homologazioa sustatzeko asmoz, erregistratutako eta homologatu gabeko ekoizleek proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte **A “Proiektuen lehiaketa”** eta **D “Ekoiztetxearen inizatiba”** tipologiatan. Ekoiztetxeak erregistratutako enpresa izateari uzten diote EITB Median azken hiru urteetan aurkeztutako proiekturik ez dagoenean.

## Inzidentzia Sailkatzeko Irizpideak

Inzidentzia mota	Inzidentiaren deskripzioa
Inzidentzia arina	<ul style="list-style-type: none"> <li>i. Justifikatu gabeko atzerapenak, kontratuan ezarritako tarteko entrega-epeetatik kanpo.</li> <li>ii. Erdibideko produktuaren kalitate falta, EITB Mediako profesional-taldearen ustez ez bada esperotakoa.</li> <li>iii. Kontratuan jasotako entregagai partzialak epearen barruan ez aurkeztea edo osatu gabe edo akatsekin aurkeztea.</li> <li>iv. Kontratuan aurreikusitako arau orokorren eta espezifikoen bestelako ez-betetzeak, baldin eta intzidentzia larri eo oso larrietan jasota ez badaude.</li> </ul>
Inzidentzia larria	<ul style="list-style-type: none"> <li>i. iJustifikatu gabeko atzerapenak azken produktuaren entregan, baina ez dutenak produktuaren emanaldia adostutako egunetan egitea oztopatzen.</li> <li>ii. Azken produktuaren kalitate falta, baldin eta, EITB Mediako profesional-taldearen ustez, ez badu produktuaren emanaldia oztopatzen.</li> <li>iii. Kontratu gauzatzeko proposatutako giza baliabideak eta bitartekoak EITB Mediaren baimenik gabe aldatzea.</li> <li>iv. EITB Mediak kontratatutako enpresari nabarmendutako gabeziak zuzentzeko emandako aginduak modu barkaezinean desobeditzea.</li> <li>v. Bi inzidentzia arin kontratu berean.</li> </ul>
Inzidentzia oso larria	<ul style="list-style-type: none"> <li>i. Justifikatu gabeko atzerapenak azken produktuaren entregan, produktuaren emanaldia adostutako datetan egitea oztopatzen dutenak.</li> <li>ii. Azken produktuaren kalitate falta, EITB Mediako profesional-taldearen ustez produktua ematea oztopatzen duena.</li> <li>iii. EITB Mediak kontratatutako enpresari nabarmendutako gabeziak zuzentzeko idatziz emandako aginduak behin eta berriz eta era barkaezinean desobeditzea.</li> <li>iv. Bi inzidentzia larri kontratu berean.</li> </ul>

**Hornitzaile batek kategoria bati lotutako kontratu baten intzidentzia “oso larri” bat izanez gero, kategoria horretatik automatikoki deshologatua gelditu da,** eragozpen nabarmen bat egon ezean. Hala izanez gero, ETBko Zuzendaritzak balioztatutako txosten batean dokumentatua gelditu beharko du.

Dena dela, ETBko Zuzendaritzari dagokio hornitzaile bat kategoria batean deshologatzea, erosketa-buruak Produkzio Zuzendaritzarekin batera egindako txostena jaso ondoren.

Deshomologazio-prozedurari eta intzidentzien kontrolari dagokienez:

- i. Eduki-kontratuaren arduradunak (produkzioak) kontratuaren garapenean sortutako edozien intzidentiaren berri emango dio merkatal-kontratazioaren arduradunari eta Produkzio Zuzendaritzari.
- ii. Eduki-kontratuaren arduradunak (produkzioak), merkatal-kontratazioaren arduradunarekin eta Produkzio Zuzendaritzarekin batera, 4. Tipologietako batean klasifikatuko du intzidentzia: “ez da bidezkoa”, “intzidentzia arina”, “intzidentzia larria” eta “intzidentzia oso larria”.
- iii. Erosketa-buruak hornitzaileari helaraziko dio, hiru egun baliodunetan bidezkoa iruditzen zaizkion alegazioak aurkez ditzan.
- iv. Merkatal-kontratazio arduraduna, eduki-kontratuaren arduraduna (produkzioa) eta Produkzio Zuzendaritzarekin batera, alegazioak balioetsiko ditu.
- v. Merkatal-kontratazio arduraduna, Produkzio Zuzendaritzarekin batera, erabaki bat hartuko du, baldin eta intzidentzia horrez ez badu hornitzailearen deshologazioa eragiten.

vi. Txostenak hornitzailearen **deshomologazioa proposatzen** badu, ETBko Zuzendaritzari helaraziko zaio, hura baita azken ebazpena ematearen arduraduna.

vii. **Oso larritzat** jotzen den intzidentzia baten ondoren txostenak hornitzailea **ez deshomologatzea** proposatzen badu, ETBko Zuzendaritzari helaraziko zaio, hura baita azken ebazpena ematearen arduraduna.

viii. Erosketa-buruari dagokio hornitzaileari eta edukien kudeataileei eta EITB Taldeko kaltetuei, halakorik balego, erabakiaren berri ematea.

Enpresa bat deshomologatu ondoren, "Erregistratua" atalera pasatuko da **urtebeterako, dagokion kategorian**. Denbora hori igaro ondoren, enpresak kategoria horretako homologazioa berreskuratuko du.

Deshomologazioak ez du eraginik izango beste kategorietan, jada formalizatuta dauden beste kontratuetan, esta kontratu horietan izan daitezken luzapen edo aldaketetan ere.